



2025-02-05

PRENTSA-OHARRA

## HEZKUNTZA-KOMUNITATEAREN PARTE-HARTZEARI BURUZKO JARDUNALDIA EGINGO DUGU EHIGE ETA HEIZE-K GASTEIZEN OTSAILAREN 7AN

“KomunitateAGO. Euskal Eskola Publikoa elkarrekin” izenburupean, hezkuntza-komunitatearen parte-hartzeari buruzko jardunaldia antolatu dugu HEIZE eta EHIGEk ostiral honetan Gasteizko Salburua auzo-etxean.

Jarduera honek jarraipena eman nahi dio pasa den abenduan aurkeztu genuen “Eskola-kontseiluak ebaluatzen eta hobetzeko tresna” dokumentuari, eta gai hauek izango ditu hizpide, besteak beste: parte-hartzea zailtzen duten faktoreak eta berauek gainditzeko proposamenak, hezkuntza-komunitateko kide guztien parte-hartzea sustatzeko klabeak eta espazio ez-formalen garrantzia.

Jarduera honen helburua, Euskal Eskola Publiko parte-hartzaileagoa eta, ondorioz, demokratikoagoa eraikitzen jarraitzea da.

Horretarako, eduki hauek prestatu ditugu:

Eskola, familia eta komunitatearen arteko harremanak, eta eskola-gobernantzan aditua den **Jordi Collet**-ek egingo du inaugurazio-ponentzia. Vic-eko Unibertsitatean Hezkuntzako Soziologiako irakasle titularra denak gaiaren esparru kontzeptuala definitu eta ibilbide historikoa egingo ditu. Ondoren, 25 urteko ibilbidean zehar bildu dituen hezkuntza-pista batzuk eskainiko ditu.

Ondoren, bi esperientzia praktikoko ezagutzeko aukera izango dugu. Alde batetik, **Lezo herri-eskolak** azalduko du zuzendaritza eta Guraso Elkartearen arteko harreman estuak dituen abantailak. Bestalde, **Zaldibiako Lardizabal eskolak** azalduko du zer nolako ekimenak egiten dituzten familia guztien parte-hartzea bermatzeko. Amaitzeko, argitaratu berri duen “Nola parte hartu eskola-kontseiluetan” gida aurkeztuko du **EHIGEK**.

**Eztabaida-taldeak** egingo dira ondoren eta, amaitzeko, ikastetxeetan parte-hartzea hobetzeko **“erreminta-kutxa”** osatuko da.

*\*Hemen aurkituko duzu informazio guztia.*

*\*Informazio gehiago jaso nahi baduzu edo elkarrizketaren bat egin nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan:*

*\*Iñigo Salaberria: 747 427 464*

*\*Lurdes Imaz: 688 689 877*



NOTA DE PRENSA

## HEIZE Y EHIGE ORGANIZAMOS UNA JORNADA SOBRE PARTICIPACIÓN EL 7 DE FEBRERO EN VITORIA-GASTEIZ.

Bajo el título "[KomunitateAGO. Euskal Eskola Publikoa elkarrekin eraikitzen](#)", HEIZE y EHIGE hemos organizado este viernes, 7 de febrero, una jornada sobre la participación de la comunidad educativa en el centro cívico Salburua de Vitoria-Gasteiz.

Esta actividad pretende dar continuidad a la [herramienta para evaluar y mejorar el consejo escolar](#) que presentamos el pasado mes de diciembre y tratará, entre otros, los siguientes temas: los factores que dificultan la participación y propuestas para superarlos, las claves para fomentar la participación de todos los miembros de la comunidad educativa y la importancia de los espacios no formales.

El objetivo de esta actividad es continuar construyendo una Escuela Pública Vasca más participativa y, en consecuencia, democrática.

Para ello, hemos preparado un programa con los siguientes contenidos:

**Jordi Collet**, profesor titular de Sociología de la Educación en la Universidad de Vic y especializado en gobernanza escolar y relaciones escuela-comunidad-familias, será el encargado de ofrecer la ponencia inaugural. Tras definir el marco conceptual del tema y hacer un recorrido histórico, ofrecerá algunas pistas educativas que ha ido recopilando durante sus 25 años de trayectoria.

A continuación, contaremos con dos experiencias de éxito. Por una parte, **Lezo herri eskola** explicará las oportunidades que ofrece una estrecha relación entre la dirección y la AMPA. Por otro lado, **la escuela Lardizabal** de Zaldibia explicará qué tipo de iniciativas llevan a cabo para garantizar la participación de todas las familias. Para finalizar, **EHIGE** presentará la "Guía para las familias que participan en los consejos escolares".

La jornada culminará con los **grupos de trabajo** y la elaboración de una "**caja de herramientas**" para fomentar la participación.

*[Aquí](#) encontrarás más información sobre la jornada.*

*\*Si necesitas más información o quieres realizar una entrevista ponte en contacto con:*

*\*Iñigo Salaberria: 747 427 464*

*\*Lurdes Imaz: 688 689 877*